

Bermeo. "Arrantzaleen museoan, ordutegi berezia"

Aste Santuko jai egunak direla eta, eguenetik astelehenera zabalik egongo da ordutegi berezian.
erredakzioa

Arrantzalearen museoa zabalik egongo da Aste Santuko jai egunetan eta ordutegi berezia izango du, bertako arduradunek jakitera eman dutenez. Eguenetik astelehenera bitartean, jai egun guztietan, izango ditu zabalik ateak.

Ordutegia egunez egun

Eguenean, barikuan eta zapatuan, hilak, 9, 10 eta 11, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara bisitatu ahal izango da. Bestalde, domekan eta astelehenean goizeko ordutegia baino ez du izango, hain zuzen, 10:00etan hasi eta 14:00etara bitartean egongo da zabalik.